

# Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak

**Borja Ariztimuño**  
Euskal Filologian lizentziatua

Artikulu honetan Tolosako eta Ataungo hizkeretan gertatzen ari den hizkuntz bariazioaz eta konbergentziaz arituko gara. Herri bakoitzetik heldu eta gazte banaren mintzoa aztertuz belaunaldi batetik bestera euskara nola eta zenbat aldatu den neurtuko dugu (maileguengatik, hizkera estandarraren eraginagatik edota kulturizazio zein deskulturizazioagatik). Halaber, hizkeren arteko konbergentziarik ba ote den ikusiko dugu. Horretarako, hizkuntzaren hainbat arlo aztertuko ditugu (lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia, sintaxia eta fonologia) galdesorta itxi baten bidez lortutako datuak erabiliz. Lan hau Gotzon Aurrekoetxeak euskararen aldaketa soziolinguistikoaz abiatutako azterketaren jarraipena da.

**GAKO-HITZAK:** Euskara · Dialektoak · Konbergentzia · Bariazio soziolinguistikoa.

Through this article we analyse the linguistic variation and convergence of two different speeches of the same language that are located in the southern half of Gipuzkoa: those from Tolosa and Ataun. We will compare the linguistic variation that each speech has suffered in each of the localities in mature and young generations, according to loanwords, the influence of the standard language or the acculturation phenomene. In addition, we will look over the possible convergence between both dialects. In this way we will research accurately on several areas of the language: lexicon, noun morphology, verb morphology, syntax and phonology. This paper is a new contribution to the study of the sociolinguistic changes in Basque language, in which Gotzon Aurrekoetxea took the first steps.

**KEY WORDS:** Basque · Dialects · Levelling · Sociolinguistic variation.

*Jasotze-data:* 2009-06-08. *Onartze-data:* 2009-06-17.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Lan honetan bi kontu izango ditugu ardatz: hizkera biren (Tolosakoaren eta Ataungoaren) arteko hizkuntz (ez)berdintasunak eta, batez ere, herri biotako bakoitzeko bi belaunaldiren arteko aldeak. Horiek aztertuz bateratze- edo urruntze-prozesuak atzematen saiatuko gara, bai eta aldaera estandarraren eragina zenbaterainokoa den ikusten ere.

Bestelako azalpen eta datuen aurretik, euskarak herri biotan duen egoeraz arituko gara laburki.

Tolosan<sup>2</sup>, hizkuntz gaitasunari dagokionez, gazteen % 86,6 euskalduna da eta % 9 ia-euskalduna (guztira % 95,6). Helduen artean, berriz, % 58,6 da euskalduna eta % 25,5, aldiz, ia-euskalduna.

Bistan da hezkuntzak ekarri duela euskaldunen kopurua horrela haztea (hortaz, euskara estandarrak herriko hizkeran eragin duela pentsatzekoa da).

Kaleko erabilera errealarari dagokionez, aldiz, urte bereko datuek erakusten dute gazteen % 49k (euskaldunak direnetatik % 56,6k) eta helduen % 29k (euskaldunen % 49,5ek) erabiltzen dutela euskara. Alde handia dago ezagutzatik erabilez, baina, beste herri batzuetako datuei begiratzea besterik ez dago, konturatzeko Tolosa bezalako herri hazitxo eta kaletar batean portzentaje hori ez dela batere mespretxagarria (cf. Otxandio; Ormaetxea 2008). Dena den, ezagutza-datu berriagorik ez dugun arren (oroitu orain arte emandako datuak 2001ekoak direla), kale-erabilera haziz doala jakin badakigu, Tolosako Udalak urtero egiten duen kale-behaketari esker: 2004an, adibidez, erabilera gazteen artean (ia-euskaldunak eta erdaldunak barne) % 62ra iritsi zen.

Ataungo gaitasun-datuei so eginez, gauzak ez dira hain ezberdinak, baina badira aldeak: gazteen % 98,3 da euskalduna eta % 0,6 ia-euskalduna. Helduen artean dago desberdintasun nabarmenena, herri honetan % 93,5 baita euskalduna eta % 3,8 ia-euskalduna.

Hortaz, bi belaunaldien artean ez dago horrenbesteko alderik eta, beraz, hasiera batean, ez dugu euskara batuaren hainbesteko eraginik espero.

Kaleko erabilerari dagokionez ez dugu herri honetako daturik, baina, espero izatekoa da, ezagutza handiagoa izanik eta herria txikiagoa, *kalearen* erdal eraginetik urrunago, Tolosan baino aski arruntagoa izango dela bertan euskaraz entzutea.

---

1. Lan hau Gotzon Aurrekoetxeak abiatuturiko EAS (Euskal Atlas Sozio-geolinguistikoa) ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da. Egitasmo honen xedea Euskal Herriko 100 herritan egindako inkestak bidez euskararen hizkuntz barietatea jaso eta nondik nora doan aztertzea da. Xehetasun gehiagorako ik. Aurrekoetxea & Ormaetxea 2006). Bihoakio nire eskerrik zintzoena Gotzon Aurrekoetxeari lan hau txukuntzen eta argitaratzen laguntzeagatik.

2. Datuok *Euskararen Datu Basetik* (<http://www.soziolinguistika.org/edb/>) atereak dira eta, besterik aipatu ezear, guztiak 2001ekoak.

## 2. Oinarri teorikoa

Lan asko egin da euskal dialektologian aspaldidanik, Bonapartek mapa ikusgarri haiek egin zituenetik, baina beti adinekoekin jardun izan dute dialektologoek, eta ia beti «base dialect» edo *oinarri dialektal*arekin. Kontzeptu horrek tokian tokiko hizkera jatortzat hartzen dena adierazten du, usu herriko zaharreneen mintzoa, «betikoa»... Hori dialektologia *tradizionalak* dialektoak ulertzeko izan duen moduagatik gertatu da: egitura itxi eta aldaezinak, muga zehatzekoak, homogeneousak, etab. Alderdi soziolinguistikoa eta hizkuntz barietazioa ezer gutxi landu da gurean. Eta hain zuzen horretan dihardu azken urteetan Gotzon Aurrekoetxeak, Europako teoriak Euskal Herriratzen eta euskal dialektologiari aplikatzen. Haren lehen lanetan jada ondorio argi batzuk ageri ziren: hizkuntza aldatzen ari da belaunaldiz belaunaldi eta euskara batuak (hezkuntzaren eta hedabideen bitartez) badu horretan zerikusirik. Aldaketa horren lekukotasunak bildu eta aztertzeko asmoz EUDIA ikerketa-taldea sortu zen, eta hortik atera da, besteak beste, EAS proiektua. Horren ondorio da lan hau.

Gertakari hau, eta berau aztertzea, lehenago hasi zen European, batez ere hizkuntza estandarra aspalditik duten herrialdeetan.

It is widely assumed in (social) dialectology that the standard varieties have gained momentum in the repertoires of most European speech communities (...). Indeed, (...) the relevance of the standard varieties in everyday life has increased greatly as a consequence of modernization and mobility (...), as a result of (...) the spreading mass media, and in particular following the changes in the educational system (...) (Auer, 1998: 1).

Esan bezala, aldaera estandarrak dialektoetan eragiteari konbergentzia edo bateratze deritzo. Bi motatako konbergentziaz hitz egin dezakegu (Auer 1998: 1): bertikala, dialektoen eta estandarren artekoa, eta horizontala, dialektoen artekoa. Bestalde, prozesu hori bera indartsua edo ahula izan daiteke (Bellmann 1998: 25).

Gu, artikulu honetan, bateratze bertikalaz jardungo gara gehienbat (Mattheier-ek (*apud* Auer 1998: 1) «advergence» deitzen dio konbergentzia-kasu edo mota sinpleenari, zeinetan dialektoek beren ezaugarriak galtzen dituzten eta aldaera estandarrekoak hartzen) eta prozesu hori izenburuko bi herrietan nolakoa den azalduko dugu, emaitzak alderatuz, baina, azaletik bada ere, konbergentzia horizontala ere aztertuko dugu (egitasmo honen barnean lehenengoz, cf. Aurrekoetxea, 2003, 2004, 2006, 2008, eta Ormaetxea, 2008, 2009), hizkera horiek batzen ala urruntzen ari diren ikusteko eta euskara batuak horretan zenbaterainoko zerikusia izan dezakeen jakiteko asmoz.

## 3. Metodologia

Gorago azaldu dugunez, bi belaunaldi ez ezik, bi herri ere erkatuko ditugu. Guztira lau lekuko dira eta denei 202 galderaz osaturiko galdesorta bera egin zaie. Hona galdesorta horren eta erabilitako metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Galdera horiek Euskararen Herri Hizkeren Atlasetik (EHHA)<sup>3</sup> atera dira, hango 2.875etik gure egitasmorako egokienak hautatuz.
- Atalka, honela banatzen dira galderak: lexikoa (120 galdera), izen-morfologia (23), aditz-morfologia (39) eta sintaxia (20).
- Ikerketa-proiektu honetarako bi lekuko hartu dira herri bakoitzeko, gizonetakoak biak, bata heldua (45-50 urte bitartekoa) eta gaztea bestea (20-25 urte bitartekoa). Adinaz gain, egoera soziokulturala ere kontuan izan dugu (adibidez, helduak ezin zuen goi-mailako ikasketarik izan eta gazteak beharrezkoa zuen horretan aritzea).
- Elkarriketa grabatua izan da eta erantzunak lortzeko hainbat bide erabili dira, lehentasun-hurrenkera honetan: galdera deiktikoak, azalpenen bidezkoak, itzulpenak, proposamenak, etab.).
- Kontuan izatekoa da mikrofono baten aurrean hitzunez jarrera normala izatea eta eguneroko hizkera informalaz aritzea ez dela gauza erraza, denok baitugu halakoetan hizkuntza jasoagoa, zainduagoa egiteko joera, baina, uste dugu hein handi batean lortu dugula ohiko hizkera jasotzea.

Azterketa, aldiz, ildo hauetatik bideratu dugu:

- Alde batetik, herri bakoitzaren barneko hizkuntz bariazioa aztertu nahi izan dugu, hots, lekuko helduaren mintzamoldetik gaztearenerainoko tartea «neurtu», bai eta, halaber, euskara batuaren eragina eta belaunaldien arteko kultur aldaketa (dela kulturatzeagatik, dela deskulturatzeagatik).
- Bestalde, herri biren arteko aldeak belaunaldi bitan ea aldatu diren (areagotu edo txikitu) aztertu nahi izan dugu, baturanzko joeragatik hala hizkeren arteko ukipenagatik den ikusi eta herri txiki («baserri girokoago») eta herri koxkorren («erdaldunduagoen») joera soziolinguistikoen artean ezberdintasunik baden ala ez jakin.

Badakigu galdesorta oso mugatua dela eta lekuko bik ezin dutela bi belaunaldi oso ordezkatu, baina, proiektua osotara begiratzuz (Euskal Herri osorako izanik), uste dugu datu nahiko fidagarriak eta aski orientagarriak lortu ditugula.

#### 4. Belaunaldien arteko hizkuntz desberdintasuna

Artikulu honekin berriemaile helduen eta gazteen arteko berdintasunak eta, batez ere, desberdintasunak azaldu nahi ditugu. Ezer begiratu baino lehen pentsa dezakegu gauza gehienetan bat etorriko direla, zeren bestela elkar ulertzeko arazoak izan bailitzakete. Horrez gain, desberdintasunak berak ez dira nabarmenegiak izango, eta ez dute izango bata bestearena ulertzeko arazorik. Tolosako datuen kasuan, adibidez, gaztelaniazko 'suicidarse' helduak *bere burua il* itzuli du eta gazteak *suizidatu* mailegua erabili du. Baina ez dugu pentsatu behar bata bestea ulertuko ez duenik, helduak erdarazkoa ezagutzen duenez *suizidatu* ulertuko du (baita erabili ere, ziurrenik) eta gazteak, nahiz eta beharbada inoiz ez

---

3. Ikerketa-proiektu hau Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas-EHHA* egitasmoarekin oso lotua dago. Alde batetik, haren galdesortatik hautatu dira guk darabilgun galdesortako galderak, hark hautatutako herrien artean aukeratu dira herriak eta haren programa informatikoa erabili da.


erabili, *bere burua il* ondo adituko du. Berdin *mantekill* (helduak) eta *gurin* (gazteak) hitzekin edota, *Ataunen, zapatu* (h.) eta *larunbat* (g.) aldaerekin edo *ial zait* (h.) eta *ial dit* (g.) esaten dutenean.

Honaino herrikako azterketa arrunta. Oraingoan, aldiz, aurrera egin nahi dugu eta herri bietako belaunaldiak erkatzuz bateratze (edo urruntze) bilakaerarik ba ote den ikustea da gure asmoa, batez ere gazteengan euskara batuak izan dezakeen eragina «neurtzeko».

Horretarako, bada, datu orokorrak azalduko ditugu, herrika, eta ondoren atalka, atal bakoitza ere herrika banatuz.


### TOLOSako helduaren eta gaztearen arteko desberdintasunak

Tolosako lekukoaren artean 29 ezberdintasun topatu ditugu lexikoan guztira (% 24,1), izen-morfologian 2 (% 8,7), aditz-morfologiaren atalean 12 (% 30,8) eta sintaxiari dagokionez 3 (% 15). Guztira, desberdintasunak 46 izan dira (% 22,8).



### ATAUNGo helduaren eta gaztearen arteko desberdintasunak

Herri honetan, berriz, 27 izan dira erantzun ezberdinak lexikoan (% 22,5), 4 izen-morfologian (% 17,4), aditz-morfologian 7 (% 19,4) eta sintaxi mailakoak 4 (% 20). Orotara, 42 desberdintasun aurkitu ditugu herri honetan (% 21,1).



## 5. Hizkuntz arlokako desberdintasuna

Lehenik, aipa ditzagun belaunaldien artean dauden ezberdintasun soziolinguistiko orokorrak, bariazio linguistikoa hobeto ulertze aldera:

- Helduak bizimodu tradizionaletik gertuago daude (edo egon dira) gazteak baino.
- Helduak gaztelaniaz eskolatuak izan dira eta gazteak euskaraz, euskara batua finkatua zegoen garaian.
- Horregatik eta bestelako arrazoi batzuegatik helduen belaunaldiak harreman txikiagoa izan du euskara estandarrarekin, baina, umeen bidez eta hedabideen bidez batez ere, izan badute. Gazteek, aldiz, betidanik izan dute harreman estu eta etengabea, eskolatik hasita.
- Azkenik, hau ere eskolaren eraginez, gaztea heldua baino kulturizatuagoa izango da hainbat arlotan.

Horrenbestez, has gaitzen inkestako datuak aztertzen. Galdesorta hainbat arlotan banatua dagoenez, azterketa ere halaxe egingo dugu: lehenik lexikoa azalduko dugu, gero izen-morfologia, ondoren aditz-morfologia eta, azkenik, sintaxia. Atal horietako bakoitzaren akabuan, berariaz informazio mota hori lortzeko galderetatik at ikusi duguna ere azalduko dugu. Horrezaz gain, nahiz eta galdesortan fonologiazko galdera zehatzik ez izan, aipatuko dugu jasotako erantzunetatik atera daitekeena.

### 5.1. Lexikoa

#### 5.1.1. Tolosan

Gorago esan bezala galdera gehienak lexikoaren ingurukoak dira (120). Atal honetan erantzun gehienak berdintsuak izan badira ere (91), ez da txikia desberdintasunen kopurua (29), erantzunen ia laurden bat hain zuzen (% 24,1). Esan beharra dago belaunaldi bien erantzunak desberdintzat hartzeko oinarri edo erro desberdineko hitzak izan behar dutela. Hau da, funtsean azaleko aldaerak ez ditugu kontuan izan. Adibidez, batak *arratsalde* ematen badu eta besteak *atsalde*, berdintzat hartu ditugu. Eta gauza bera *zorabiatu* eta *txorabiatu* bezalakoekin ere.

Ikus ditzagun, bada, desberdintasun horiek banan-banan. Batzuetan berrie-maile helduak eredu zaharra (edo «oinarri dialektala»<sup>4</sup>) erabiltzen du, baina gazteak berriagoa. Esaterako: helduak *ego*, *arbol*, *xixa*, *ukalondo*, *larru gorri*, *erromako zubi* (nahiz eta *ortzadar* ere ezagutu), eta gazteak *ego aize*, *zuaiz*, *perretxiku*, *ukondo*, *biyutxik*, *ortzadar* (nahiz eta *erromako zubi* ere ezagutu).

Bestetan, heldua maileguz baliatzen da (*kuarto*, *kutxillo*, *mantekill*, *binagre*, *eskoba*, *tuerto*, *funeral*, *apellidu*) eta gaztea euskal hitzez, nahiz eta oinarri dialektalekoak ez izan nahitaez (*logela*, *laban*, *gurin*, *ozpin*, *erratz*, *begibakar*, *illeta*, *abizen*).

---

4. Tolosako oinarri dialektalaz jabetzeko, besteak beste, Kandido Izagirre (1967) eta Irene Hurtado (2001).

Alderantzizkoa ere gertatzen da, ia bestea adina, non helduak ondare zaharreko berbak darabiltzan (*mainer, burruntzali, orratz, aitaordeko* eta *aitaponteko, kilima, errita (egin), bere burua il* edo *bere buruaz egin*) eta gazteak, aldiz, maileguak (*sabana, kazo, alfiler, padrino, koskiya, bronka (bota), suizidatu*).

Kasu batean biek mailegua darabilte, baina helduarenak eredu zaharragoa iradokitzen du: helduak *pantorrill* eta gazteak *bola*.

Badira, bestalde, helduaren erantzunik gabe gelditu diren galderak ere. Gazteak *aitagiñarreba, amagiñarreba* eta *asperen* eman ditu, eta helduari ez zaio ezer atera. Dena den, nahiko argi ikus daiteke hiru erantzun horietan (bai eta bestelakoetan ere) euskara batuaren eragina.

Azkenik, badira beste zenbait ezberdintasun ziur asko aukeran dauden aldaerak direnak (nahiz eta batzuetan helduarenak eredu zaharragoa iradoki): helduak *atzo iluntzean, zurrunbillo, zatittu, entzun*<sup>5</sup> eta gazteak *atzo gauen, aize bolada, autsi, aittu*.

Honaino helduaren eta gaztearen artean topatu ditugun desberdintasunak. Datu asko ez badira ere, zenbait joera ikusten dira, hala nola eredu estandarraren eragina gaztearengan, heldua eredu zaharrari atxikiago, kultur aldaketaren zantzuak... Dena den, argitu beharra dugu, geroxeago ere aterako baitzaigu gaia, Tolosako euskara oso nabarra izan dela, eta ez dela berdin hitz egi(te)n kalean eta inguruko auzo edo baserrietan (ezta azken horien artean ere). Hortaz, ezberdintasun batzuk helduaren baserriko jatorriari eta gaztearen betiko kaletar izaerari zor zaizkiokeela uste dugu.

Berariaz lortutako datuez gain, hau ere ikusi dugu lexikoari dagokionez: *-a* itsasia ala ez: helduak *intz, kozk* (*-a* zalantzan), *amon* vs gazteak *intza, kozka, amona*. Oinarri dialektaleko forma ala batuko forma: helduak *erdoi, etxoin, iztar, txonkatill, dijoa, estudiok, ude...* vs gazteak *erdoil, itxoin, izter, txorkatil, doa, ikasketak, ura...* Edota mailegua ala euskarazko hitza (/batua): *aranak* (helduak) vs [θ] *iruelak* (gazteak), eta *notizi* (h.) vs *albiste* (g.). Bestalde, helduak *azkar* ('pronto') eta *garaiz* ('temprano') bereizten ditu, eta gazteak *bietan goiz* eman du.

### 5.1.2. Ataunen

Herri honetako datuak aurrekoen antzekoak dira kopuruz, baina ez beti izaeraz. 27 dira ezberdintasunak (% 22,5) eta, Tolosako datuekin egin dugun bezala, ondoren banan-banan azalduko ditugu.

Batzuetan, helduak oinarri dialektaleko<sup>6</sup> formak erabiltzen ditu (edo horren kutsua dutenak) eta gazteak berriagoak, hala nola helduak *egoi, basal, zapatu, lora, izara, kaporraz, zilborra, narru bixin, ankutxik* eta gazteak *ego aize, intza, larunbat*<sup>7</sup>, *maidara, jostorratza, txirrin, bilutxik, oñutxik*.

5. Bitxia da, zeren eta lehen ez omen zen forma hau erabiltzen (*aittu* baizik), nahiz eta ziur asko ezaguna izan (Hurtado, 2001: 139).

6. Ataungo hizkeraz gehiago jakiteko Joxe Migel Azurmendi (1996) eta Irene Hurtado (2001).

7. Aldaera hau (*larunbat*) zaharren artean ere *zapatu*-rekin lehiatzen dago (Azurmendi, 1996 eta Hurtado, 2001), baina, ez dugu oinarri dialektalekotzat hartu, bestea zaharragoa baita alderdi hartan. Gainera, esanguratsua da gazteak *larunbat* nahiago izatea, horren atzean euskara batuaren eragina baitago ziur asko.

Bestetan helduak euskal ondareko hitza darabil (*uolde, aittepuntako, irrieta (egin), gor, bere burua egin, abizen*<sup>8</sup>) eta gazteak mailegua (*inundazio, padrino, bronkea (bota), sordo, suizidau, apeyidu*).

Alderantziz ere gertatzen da. Adibidez helduak *kuarto, brasa, eskoba, tuerto* eta gazteak *gela, errautsa, erratza, tartalo*.

Beste zenbaitetan mailegu ezberdinak edota hizkera hartako sinonimo desberdinak darabiltzate: helduak *aize* (orokorra), *puskau, tia, mareau* eta gazteak *zurrunbiyo, moztu, bota, desmayau*.

Azkenik, lau galderatan gazteak ez du erantzunik eman (deskulturizazioaren ondorioz) eta helduak bai: *arnasea* ('suspiro'), *sui(n), suegro, suegra*.

Oinarri dialektala ala batua: helduak *erdo, txonkatil* vs gazteak *erdoil, txorkatiya*. Euskara ala mailegua: helduak *pikuk, aitzaki, gogoratzen* vs gazteak *ziruelak, eskusa, akordatze*. Bestelako aldaeraren bat ere badago, adibidez, helduak *otxein* 'hots egin' eta gazteak *deittu*.

Horago Tolosakoez esan bezala, ez dugu nahikoa datu ondorio erabatekorik ateratzeko, baina, ikusi ikusten da joeraren bat: heldua eredu zaharrari gehiago atxikitzen zaio eta mailegu gutxiago darabil.

## 5.2. Izen-morfologia

### 5.2.1. Tolosan

Atal honek 23 galdera zituen eta horietarik 2 besterik ez dira ezberdinak izan (% 8,7). Hauexek izan dira: helduak *astoekin, itsaso aldera* eta gazteak *astokin, itsasoa*.

Datuok ez dira erraz interpretatzen. Lehenengo desberdintasunari dagokionez, badirudi gaztearen erantzuna oinarri dialektetik gertuago dela. Hau izan liteke helduak batutik jaso duen eragin gutxietariko bat, ez erabatekoa, ez eta egonkorra ere, zeren beste erantzun batzuetan gazteak bezala bokal hori galdu egiten baitu (*semek* erg. pl.) edota, eredu zaharragoari legokiokeen bezala, *-a-* erabili (*lagunak* erg. pl.).

Bigarren ezberdintasunak, aldiz, ez digu buruhausterik sortu, eta hizkuntz ekonomia-aren legearen adibidetzat har dezakegu: hots, helduak hurbiltze-adlatiboaren funtzioa duen egitura erabiltzen duen bitartean, gazteak adlatibo arrunta darabil kasu honetan (nahiz eta euskara batuko *-rantz* modukoak ezagutu edota hitz jakin batzuekin *-raka* atzikia ere erabiltzen duen).

Horiez gai, ezaugarri gutxi dira ezberdinak. Alde batetik, fonetikarekin lotuago daudekeen *-arentzat, -ari* (helduak) vs *-antzat, -ai* (gazteak) aldaerak ditugu. Bestalde, gaztearengan aldaera estandarren eragina erakusten duen *-ek* ergatibo plurala dugu: gazteak *lagunek, semeek* vs helduak *lagunak, semek*. Eta azkenik, *aik* (helduak) vs *beaiek* (gazteak) aldaerak ditugu.

---

8. Hain zuzen, Tolosan gertatzen denaren kontrakoa, han gazteak erabiltzen baitu *abizen* (eta helduak *apellidu*).



### 5.2.2. Ataunen

Herri honetan, berriz, 4 izan dira erantzun ezberdinak (% 17,4): helduak *astokin* (soziatibo plurala), *itxasoño*, *zeorrek*, *zerbait* eta gazteak *astokin*, *itxasoa*, *zuk*, *zeozer*.

Ikusten denez, hainbat motatako aldaketak daude aldaeren artean. Lehenean kamuste fonetikoa nabari da gaztearen kasuan, pluraleko eta singularreko formak berdintzen dituen (*astokin*<sup>9</sup>), hurrengo biak «sinpletzeak» dira (*itxasoño* > *itxasoa*, *zeorrek* > *zuk*) eta, azkenik, aukeran zeuden bi aldaeretatik bakoitzak bat hartu duelako gertatu den desberdintasuna (*zerbait* & *zeozer*).

Azkenik, berriaz galdetutakoetatik at topatu dugun ezberdintasun bakarra hau da: *etxetio* (helduak) vs *etxetik* (gazteak). Argi ikusten da hor euskara batuaren eragin gaztearengan.

## 5.3. Aditz-morfologia

### 5.3.1. Tolosan

12 erantzun ezberdin (% 30,8). Ez ditugu kontuan hartu ondoko kasu hauek: *alde emendi* vs *jun* (ez da aditzari dagokion desberdintasuna, batak partizipioa eta besteak esaldi bat (aditzik gabea!) erabiltzen baitu), *juten nitzen* vs *nijoan*, esaldi bera itzultzeko bi modu besterik ez dira, interpretazioa zein den (yo **iba** a la escuela cuando eso sucedió) ohiturazkoa ala puntukaria... Gainera, helduari *nijoan* proposatu eta batere arazorik gabe onartu zuen. *traen* = *ekarri due* vs *ekarriko'ue*. Hau ere gaztelaniazkoa ulertzeko moduaren arabera. Izan ere, biek ulertu dute *ekartzen dute* edo *dakarte* ez dela itzulpen egokia, ez baita ez ohiturazkoa ez puntukaria. Bestalde, erantzun batean gazteak gaizki ulertu zuen eta **habeis** itzuli ordez (helduak *dezue*) **han** itzuli zuen (*due*). Halaber, erantzun batzuetan gazteak pluraleko formak erabili dituen bitartean, helduak singularrekoak eman ditu, baina, hori *asko* hitzari egotzi behar zaiola uste dugu (hots, sintaxiko atalean aztertzen dena), bestela helduak ere pluraleko formak arruntki erabiltzen baititu (areago, sintaxiko atalean espresuki *asko*-rekiko komunztadura jasotzeko galderan pluraleko forma erabili zuen!). Azkenik, esaldi batean helduak oinarri dialektaleko *giñun* forma eman du eta gazteak batutik gertuago den *genun*, baina galdera horretan beste aditz-forma bat zen aztergai, eta, beraz, ez dugu kontuan hartu.

Kontuan eduki ditugun aldeak (parentesi artekoak ez ditugu aintzat hartu, ez baitira berriemaielen behin betiko erantzunak edota atal honi edo dena delako galdera horri dagozkionak, baina, balio dutenen joera berbera erakusten dutenez, ondo iritzi diogu zerrendan ipintzeari, aldea nabarmenago ikus dadin):

- Alegiazko *l-* ala orainaldiko *d-* erdarazko orainaldikoaren ordain: *puede* (iragangaitz) = helduak *litteke* vs gazteak *daiteke*; *puede* (iragankor) = *lezake* vs *dezake* (eta *li(t)zaioke* vs *diezaioke*; gazteak ez omen du erabiltzen normalean, baina, esatekotan, horrela esango lukeela dio).

---

9. Dena den, Azurmendi-ren (1996: 61) datuen arabera, aldiz, forma hori litzateke oinarri dialektalean ohikoena.

- Pluralgilea -e ala -te: *zenuen vs zenuten; die vs diote* (eta *dauke vs daukate*).
- Perifrastikoa vs trinkoa (badirudi gazteak gaizki ulertu zuela erdaraz **ha traido** baitzen): *ekarri dittu vs dakartza*.
- Forma zaharragoa vs berriagoa edo sinpleagoa: *ekarri li(t)zaioke vs bake ekartzea -ri*.
- Oinarri dialektala vs berriagoa: *za[r]jete vs zaudete* (eta helduak ezagutzen duen *dakarzki vs gazteak darabilen dakartza*).
- Aditz ezberdinak erabiltzea: *\*edun vs eduki: due* (eta *dauke*) vs *daukate; dittu vs dauzka; zittun vs zeuzkan*. Eta *ari izan vs ibili: ai zeate vs zabilzate*.
- Bestelakoak: *dizkie vs dizkio*.

Gorago esandakoez gain, helduak aditza jokatzeko duen joera da alderik nabarmenena (edo, bestela esanda, gazteak aditz jokatu gabeak erabiltzeko joera erakusten du): helduak *ekarriyak, ez iozu ezer esan* eta gazteak *ekarri, ez esan ezer*.

Horrezaz kanpo, *gertatu* (helduak) vs *gertau* (gazteak) aldaerak ditugu, lekuko gazteak mendebalderantz egiten duen adibide bakarra.

### 5.3.2. Ataunen

Ezberdintasun gutxiago topatu ditugu herri honetan aditz-morfologian, 7 hain zuzen (19,4):

- Nor-Nori lehenaldian: helduak *zaiten* (baina baita *zizaten*) vs gazteak *zitzaiten*.
- Pluralarekiko komunztadura<sup>10</sup>: *zitzaion vs zitzaizkiten*.
- *\*edun*-en erroa: *(t)zenduten vs zenuten*.
- Forma sinpleagoa (berriagoa?) vs forma trinkoagoa (zaharragoa?): *eittea baaukea vs in deikie*<sup>11</sup>.
- *ari izan vs egon: ai zate vs zarete*.
- *dauke vs daukie*
- Nor(3.p.pl.)-Nork(3.p.pl.): *dakartze vs dakarzkie*.

Horiezaz kanpo, herri honetako datuetan ez dugu datu aipagarri gehiago aurkitu.

10. Adizki ezberdinak dira, gazteak gaizki ulertu baitzuen gaztelaniazko esaldia (**le** zen, eta ez **me**). Bestalde, ohartu oraingoan helduak ere *zit*-dun aldaera darabilela nor-nori adizkiaren lehenaldirako.

11. Tolosako datuetan justu kontrakoa agertu zaigu.

## 5.4. Sintaxia

### 5.4.1. Tolosan

Atal honetan 20 galderetatik 3 izan dira ezberdinak (% 15):

- *egon* ala *izan*: *jende asko izan da emen* vs *jende asko eon da emen*.
- «berdin»-en (kasu honetan *i(g)ual*-en) erabilera: *igual zaiak* vs *igual dit*.
- Faktitiboa: *janazi in tzion* vs *jate[r]a beartu zun*.

Bestelako aldeak ere ikusi ditugu, baina ez zirenez galdera horietan bilatzen ari ginena, ez ditugu kontuan hartu:

- Gorago ikusitako *izan* vs *eduki* (kasu honetan *asko*-rekiko komunztadura da bilatzen genuena eta horregatik ez dugu kontuan izan).
- Galdegaia aditz perifrastikoa deneko galdera biei berdin erantzun diete, *egin* indargarria erabiliz. Baina beste bi erantzunetan ere eman du gazteak eta helduak ez:
  - *bizilaunek deittu die* vs *bizilagunek deitu in diate*
  - *jun bearko'ek* vs *jun in bearko'zu*

Aldiz, faktitiboa ematerakoan gazteak ez du *in* erabili eta helduak bai (dena den erantzuna osoki izan da ezberdina eta ezin dugu guztiz kontrajarri galdegaiaren ikuspuntutik ere).

- *Ahal izan* etorkizunekoa: *biar eun guztie etzanda eon al izango'ek* vs *biar etzanda eon alko'zu eun oson*.
- Aditz-morfologiarekin zerikusia duen *-e* vs *-te* pluralgilea (*die* vs *didate*).

### 5.4.2. Ataunen

Herri honetako bi belaunaldien artean 4 desberdintasun bildu ditugu (% 20), horietarik 2 Tolosako berberak:

- «gogoratu»-ren adizlagunaren marka: *aittekin* vs *gurasotaz*.
- «berdin»-en (kasu honetan *igual*-en) erabilera: *igual tzait* vs *igual dit*.
- «behar» + aditz iragangaitza: *jun in bearko'zu* vs *jun bearko zea*.
- Faktitiboa: *jana:zi in zion* vs *jatea obligau sion / beartu z(i)on*.

Atal honetan, bi herrietan mota bereko ezberdintasun batzuk daudela ikusi dugu. Gaztelaniazko 'al terminar (los estudios)' Tolosako helduak *bukatutakon* eman zuen eta Ataundarrak *bukatu zitunen*; gazteak, aldiz, biak antzeko formaz baliatu ziren, Tolosakoak *bukatzeakon* esan zuen eta Ataungoak *bukatzeako*.

Beste antzekotasun bat, baina herrien artean justu alderantzizkoa, *egin* indargarriarena dugu. Tolosan gazteak darabil gehiagotan eta Ataunen helduak: Tolosako gazteak *bizilagunek deitu in diate*, *jun in bearko'zu* vs helduak *bizilaunek deittu die*, *jun bearko'ek*; Ataungo helduak *bezinok otxein in die*, *jun in bearko'zu* vs gazteak *bezinok deittu die*, *jun bearko zea*.

## 6. Bestelako datuak

Ondoren, nahiz eta horretara berariaz zuzendutako galderarik egin ez dugun, fonologiako ezberdintasunak aipatuko ditugu, hizkuntz aldaketak atal honetan ere eragiten duela ikusarazteko.

### Fonologia

Nahiz eta galdesortan berariaz fonologiako galderarik ez den, atal guztietan zehar bildu ditugun erantzunetatik datu interesgarri zenbait ikus daitezke, hizkera hauetan euskarak belaunaldi batetik bestera zein aldaketa fonologiko jasan dituen ikusteko. Aipa ditzagun batzu-batzuk:

#### Tolosan

- a > e /i,u (C)\_: helduak noizbehinka bai: *zikinkerie, giñen* (< *giñan*), *ue* ('hura'), *launek* ('lagunak' erg. sg.), *aitzeki, dauke, zeuken, ude* ('ura'), *die* ('dira') baina *erria, aundia, zerua, dirua, liburua, lagunari*. Gazteak aldiz behin bakarrik: *giñen* (oinarri dialektaleko forma ala batuaren eragina?), baina *erria, aundia, zerua, ua, dirua, lagunak* (erg. sg.), *liburua, lagunari, aitzaki, dauzka, zeuzkan, ura, dia*.
- ll (vs y): helduak gehienetan jatorrizko hotsa ahoskatzen du: *illargi, zurrunbillo, illuntzean, ollasko* (eta *oyasko*), *kutxillo, mantekill, txonkatill, apellidu, mutill ok/oni, bokailloa*. Gazteak, aldiz, ia inoiz ez: *iyargi, oyasko, biyutxik, koskiya, mutiyok/-oni, bokadiyoa* eta, behin, *illeta*.
- Bustidurak<sup>12</sup>: helduak nahikotxo: *zatittu, oitura*, «egite-» beti (*itten, eitten, itzeitten*), *litteke, \*edun*-en «-it-» pluralgilea beti (*dittu, zittun, dittut*), *deittu*. Gazteak ere bai, baina gutxiago: *aittu*, «egite-» beti (*itte, itzeitten*), *\*edun*-en «-it-» pluralgilea beti (*dittu, dittue, zittun, dittut*), baina *zaitu* (beste hitz baten bila ari zela esan zuen), *oitura, daiteke, deitu*.
- Gazteak laburtze gehiago egiten ditu, batez ere adizkietan: *itten tzan, itten dek* vs. *itte'zan, itte'zu, begiratu* vs *beidatu, dago* vs *dao* modukoak (nahiz eta batzuetan alderantziz ere gertatu: *di(o)u* vs *diogu*) edota *barruan, leen, nere* vs *barrun, len, ne* etab. bezalako kamusteak.

#### Ataunen

- a > e /i,u (C)\_: herri honetan indartsuagoa da asimilaziorako joera, eta bi berriemaileengan berdintsu, beraz, adibide gutxi batzuk ipiniko ditugu, horren erakusgarri: helduak *eurre, muiñek, aittepuntako, garestie, urdiñe, errie, zerue, ue, aragie* eta gazteak *egurre, udaberrie, abuztue, garestie, errie, zerue, ue, aragie*, etab.
- ll (vs. y): berriemaile helduak bi adibidetan mantentzen du jatorrizko hots hori, beraz, Tolosakoak baino askoz gutxiagotan: *illargi* eta *mutill oni*, baina *oyasko, kutxiyo, mantekiya, koskiyak*. Gazteak, aldiz, ez du adibide bakar batean ere ll ahoskatzen: *iyargi, oyasko, kutxiyo, mantekiya, txorkatiya, koskiya, apeyidu*, etab.

---

12. *i* ondoko *n*-ak bustitzea ez dugu aipatuko, arruntagoa eta sistematikoa baita, hala Tolosan eta Ataunen, nola Gipuzkoako hizkera gehienetan.


- Bustidurak: honetan ere biek antzera egiten dute: *aittu, beittu, oittura dittu, 'ttut*, baina, Tolosakoek ez bezala, «egite-» beti bustidurarik gabe (*ite-*) eta «-it-» pluralgilea ere batzuetan herskaria palatalizatu gabe (*ditue, zitun*). Hortaz, badirudi ez dela Tolosan bezain sistematikoa.
- Laburtzeak: Ataungo helduak Tolosakoak baino gehiago egiten ditu eta gazteak antzeratsu: *lengo urtean, lengoan, barruan, eiten, iten dezu, liburuak, erosteko* vs *lengo urten, lengon, barrun, iten, ite'zu, liburuk, eosteko*. Biek *gaztek, di(o)u, nijon, estudiok, euki'ttut, laune*. Edota helduak bai eta gazteak ez *eonaikozu, juteko* vs *eon naiko dezu, joateko*.

## 7. Hizkuntz bariazio osoa: atalka eta osorik, gramatikan eta lexikoan

Atal honetan 5. puntuko ezberdintasun guztien gainean egin dugu lan, aldaera «txikienak» (adibidez, *lore* vs *lora*) ere kontuan hartuz eta, bilatzen genuenez gain, berriemaileen erantzunek erakusten dizkiguten beste diferentzia batzuk ere baliatuz.


Helduengan ere badu aldaera estandarrak eraginen bat, baina oso txikia (hilabete-izenen bat, aldaeraren bat, beti lexikoan). Gazteengan, aldiz, espero daiteke eragin handiagoa izatea. Honatx datuak:

### Tolosan



13. Kolore argiz agertzen diren hiru zutabeak (izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxiarenak) *Gramatika* zutabearen barnean sartu ditugunak dira.

## Ataunen




Ikusten denez, Tolosan, herri handiago eta «erdaldunagoa» berau, euskara batuak eragin handiagoa izan du, ziur asko hizkuntzaren transmisioa, hein batean behintzat, eskolari esker ziurtatu delako. Ataunen, aldiz, gehienek euskaraz egiten zutela (eta dutela) kontuan hartuz, ez da harrizkoa eurenari hobeto eustea. Gainera, Tolosako euskara berez dago estandarretik gertuago (Ataunek badu mendebaldeko euskararen antz handiagoa) eta horrek erraztu zezakeen gazteek euskara batua beraien herriko hizkerarekin gehiago nahastea, muga non den hain argi ez ikusiz.

Bestalde, bada datu esanguratsu eta parekoren bat: gazteetarik batek ere ez du euskara batuaren eraginik izan sintaxian (beharbada, alde horretatik bi herriak estandarretik oso hurbil daudelako) eta, hortik at, eraginik txikiena bietan izen-morfologiak jaso du. Horretan eta lexikoan, Ataungoak duen eraginaren bikoitza jasan du tolosarrak. Baina, alde nabarmenena aditz-morfologian dago, Tolosakoak lau aldiz handiagoa izan baitu estandarren eragina<sup>14</sup>.

14. Egia esan, hain estu jokatu ez bagenu, eragin garbi-garbia % 7,7koa izango litzateke, Ataungoa baino handiagoa ere, baina ez hainbestekoa, eta beste arloetako datuen parekoagoa. Halere, ortara % 11,3 litzateke, Ataungoaren bikoitza ia-ia.

## 8. Ataun eta Tolosaren arteko desberdintasuna



### 8.1. Konbergentzia eta urruntze motak eta arrazoiak

Ez dugu gehiegi sakonduko atal honetan (datuak nolabait sailkatuta emango ditugu), oso interesgarria izan daitekeen arren. Grafikoan ikusten denez, aditz-morfologian gertatu da gazteen hizkeren arteko konbergentzia nabarmenena eta, hala eta guztiz ere, ez da oso handia. Gainerakoetan, edo ez dago alderik, edo oso txikia da berori. Orotara ere, hutsala da bi belaunaldikoen arteko desberdintasun-indizea.

Hori, grafikoak dioena, baina, datuak xehekiago aztertuz, ikusiko dugu berdintasun estatistiko hotz horrek hainbat aldaketa interesgarri ezkututzen dituela, bai eta dirudiena baino konbergentzia handiagoa ere (batuaren eraginez edo hizkeren arteko ukipenagatik besterik gabe).

Alde batetik, gazteek arrapostu ezberdinak eman dituztenean zer gertatzen den ikusiko dugu eta, gero, berdin erantzun dutenean zer-nolako «berdintasuna» erakusten duten:

#### *Gazteen erantzun ezberdinak*

Batzuetan berriemaile gazteetako batek euskara batutik jasotako forma eman du eta besteak oinarri dialektalekoa, eta askotan helduek erantzun berbera edo antzekoagoa eman dute: adibidez, Tolosakoak *ortzadar* (nahiz eta *erromako zubi* ere onartzen duen) vs Ataungoak *erromako zubi* (helduek, aldiz, biek *erromako zubi*), *ukondo* vs *ukalondo* (bi helduek *ukalondo*), *diote* vs *die* (helduek *die*), *zaudete* vs *zarete* (helduek *zaete* eta *zaate*), *daukate* vs *daukie* (helduek biek *dauke*), *diate* vs *die* 'didate' (helduek *die*), etab.

Beste batzuetan lekuko batek euskal hitza (batukoa edo ez) erabili du eta besteak mailegua (dela oinarri dialektalekoa, dela euskal hitza «galdu» duelako). Kasu hauetan helduek, maiz, edo gazteen hitz berbera (mailegua edo euskal hitza) edota biek mailegu bera darabilte, eta gutxiagotan biek euskal hitz berbera: Tolosakoak *leorte* vs Ataungoak *seki* (helduek nork bere herrikide gazteak bezala),

*uolde* vs *inundazio* (helduek biek *uolde*), *laban* vs *kutxiyo* (heldu biek ere mailegua), *gurin* vs *mantekiya* (heldu biek mailegu berbera), *gor* vs *sordo* (helduek Tolosako gaztearen hitz bera edo haren aldaera), *txorabiatu* vs *desmayau* (Tolosako helduak *zorabiatu* eta *mareatu*, eta Ataungoak *mareau*), *illeta* vs *entierro* (Tolosako helduak *funeral* eta Ataungoak *entierroa*, gazteak bezala), *abizen* vs *apeyidu* (hau gorago azaldu dugu, helduek justu alderantziz).

Beste aukera bat da, jakina, helduek erakusten duten ezberdintasun berbera edo antzekoa izatea gazteek ere, biak oinarri dialektalari atxikiz: adibidez, Tolosan *iaz*, *e(r)aneun*, *gazta*, *bi orduz e-/itxoin diot*, *zarata*, *eon alko'zu/al izango'ek* vs Ataunen *lengo urte(a)n*, *lengo(a)n*, *gaztai*, *bi ordu(n) zai eon naiz*, *otsa*, *eon daikezu*, etab.

Azkenik, berriemaile bakoitzak erantzun ezberdin bat ematea ere posible da eta, hasiera batean, nork bere hizkerako sinonimo bana hautatu duela pentsa dezakegu, datu gehiagorik ezean: adibidez, Tolosako gazteak *aize bolada*, baina helduak *zurrunbillo*, eta Ataungo gazteak *zurrunbiyo*, baina helduak *aize*; Tolosako gazteak *autsi*, helduak *zatittu*, eta Ataungo gazteak *moztu*, baina helduak *puskau*; edota helduek berdina baina gazteek ezberdina: Tolosako gazteak *zerbait* vs. Ataungoak *zeozer* (helduek biek *zerbait*<sup>15</sup>).

Horiezaz gain, badira beste mota batzuetako aldagaiak ere (gazte bakoitzaren deskulturizatzeko/kulturizatzeko maila, horrek dakarren euskal lexikoaren galera (mailegu ezberdinetara joz) edo bietako batek hitza batutik hartzen duenean, etab.), baina, hemen amaituko dugu desberdintasunekin eta jarraian gazteen erantzun berdinen arrazoiak eta motak azalduko ditugu.

### *Gazteen erantzun berdinak*

Atal honetako faktorerik garrantzitsuenetakoa aldaera estandarren eragina izan daitekeela uste dugu, baina, badira bestelakoak ere:

- Batuagatikoak: gazteek *egoaize* (vs helduek: Tolosan *ego*, Ataunen *ego*), *intza* (vs *intz* - *basal*), *larunbat* (vs *larunbat* - *zapatu*<sup>16</sup>), *eguberri* (vs *eguberri* - *eguarri*), *erdoil* (vs *erdo*), *lore* (vs. *lore* - *lora*), *(lo)gela*<sup>17</sup> (vs *kuarto*), *txorkatil-txorkatiya* (vs *txonkatill* - *txonkatil*), *biyutxik* - *bilutxik* (vs *larru gorrin* - *narru bixin*), etab.
- Hizkeren arteko konbergentzia edo ukipenagatik: gazteek *bota* (vs Tolosako helduak *bota*, Ataungoak *tiau*), *gurasotaz* [gogoratu] (vs *gurasotaz* - *aittekin*), *ial dit* (vs *igual zaiak* - *ial tzait*), etab.

---

15. Baina biak daude bilduak, beste lan batzuetan, bai Ataunen, bai eta Tolosan ere (cf. Izagirre 1967, Azurmendi 1996 eta Hurtado 2001).

16. Berez, bi aldaerak lehian omen zeuden XX. mendearen hasieratik (lan honetako 7. oin-oharra), baina, batuan *larunbat* hobesten denez, pentsa dezakegu horrek bultzatzea Ataungo gaztea aldaera hori hautatzera.

17. Tolosakoak *logela* eman zuen (egiazki lehenik *gela* eta gero bere burua zuzenduz *logela*) eta Ataungoak *gela*. Berdintzat jo ditugu batuaren eragina nabarmentzeko, helduen *kuarto*-ren aurrean.



- Azkenik, ondare zaharreko lexikoaren galera nabari da gazteengan eta askotan biek mailegu berberera jotzen dute: *padrino* (vs *aitepuntako - aitaponteko*), *bronk(e)a bota* (vs *errita egin - irrieta egin*), *suizida(t)u* (vs *bere burua il - bere burua egin*), etab.

## 9. Ondorioak

Horrenbestez, ondorioren bat ateratzeko tenorea dugu:

Lehendabizi ikusten duguna da belaunaldi batetik bestera hein bertsuan aldatu direla bi hizkerak, oro har. Datu deigarriena Tolosako gaztearen aditz-morfologia-rena da, hain zuzen batuaren eragin handiena jaso duen atala.

Estandarrari dagokionez, oro har, esan daiteke ez dagoela aldaera horren eragin handiegirik, Tolosako gaztearen aditz-morfologian salbu. Oro har ere, Tolosako berriemaile berarengan atzeman dugu euskara batuaren eragin handiagoa. Horren zergatia arestian azaltzen saiatu gara, baina, berriz ere esango dugu labur-labur: baliteke Tolosako hizkeraren aditz-morfologia euskara estandarretik hurbilago egotea berez eta, kontraesana lirudikeen arren, horrexegatik gehiago aldatu izana; izan ere, hiltunek «arrisku» handiagoa lukete euren moldea batuarenarekin oharkabean nahasteko.

Gure emaitzak beste ikerketa batzuetako datuekin erkatuz gero, aldaketaren zenbateko orokorreari dagokionez (Tolosan % 22,8, Ataunen % 21,1), esan dezakegu Otxandio eta Aramaiokoen (biak % 23,2) antzekoak direla (Ormaetxea 2008, 2009), bai eta Zeanuri (% 26), Areatza eta Artea (biak % 25) eta Igorreko (% 24) portzentajeen antzekoak ere, Lemoa (% 42) eta Dimakoetatik (% 44) urruntxo (Aurrekoetxea 2006-2008).

Aldaera estandarren eraginari dagokionez, Ataungo emaitza orokorra (% 6,2) Otxandio (% 8,9) eta Aramaiokoetatik (% 9,9) gertuago dagoen bitartean, Tolosakoa (% 14,2), Dimakoaren (% 13) antzekoagoa da.

## Bibliografia

- Auer, P. (1998): "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica*, **XXXII/1-2**, 1-9.
- Aurrekoetxea, G. (2003): "Euskalkiak estandarren uholdepean (Arratiako kasua)", in Mendebalde Kultura Alkartea, *Ahokotasuna aztergai*, 167-177.
- , (2004): "Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikusuntu teorikotik begirada bat)", *Uztaro*, **50**, 45-57.
- , (2006): "Hizkuntza estandarren eta dialektoen bateratze joerak", *ASJU*, **XL/1-2**, 133-160.
- , (2008): "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran", *Euskalingua*, **12**, 17-26, on line: <http://www.mendebalde.com> [kontsulta: 2009-03-04]
- & Ormaetxea, J. L. (2006): "Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa' ikerketa proiektua", *Euskalingua*, **9**, 157-163, on line: <http://www.mendebalde.com> [kontsulta: 2009-03-04]
- Azurmendi, J. M. (1996): *Ataungo euskara*, VI. Gerriko Ikerlan Sariketa, Lazkao.

- Bellmann, G. (1998): "Between Base Dialect and Standard Language", *Folia Linguistica*, **XXXII/1-2**, 23-34.
- Euskaltzaindia, (1999): *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*, Bilbo.
- Ezenarro, A. (2008): "Etxebarri eta Bolibarko bariazio linguistikoa", *Uztaro*, **67**, 59-84.
- Hurtado, I. (2001): *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*, IX. Gerriko Ikerlan Sari-keta, Lazkao.
- Irizar, P. (1991). *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki), Euskaltzaindia, Bilbo.
- Izagirre, K. (1967): "Tolosako euskeraren iztegirako gaiak", *BAP*, **23**, 157-188.
- Ormaetxea, J. L. (2008): "Otxandioko hizkera: adinaren araberrako bariazioa", *FLV*, **XL/108**, 249-262.
- , (2009): "Sociolinguistic Variation in Basque Language", I CLAVE 5 kongresu-rako onartutako txostena.



